

A. SANTI ONAINDIA BASETA (1909-1996)

Bilbo, 1996-V-31

Aita Santi Onaindia karmeldar ohorezko euskaltzaina, aurtengo otsailaren 11.ean Gasteizen hil zen. Izatez Amorotoko Atxuriarte baserrian jaioa, 1909. urteko martxoaren 24an. Bere gurasoak, Migel Onaindia Barrutia markinarra eta Jazinta Baseta Albizuri axpe-arrazolarra zituen.

Bere bizitza eta laneri buruz aski luze idatzia dute lehenik Patxi Uribarrenek *Jakin* 53. zenb. (Uztaila-Abuztua, 1989) eta hilberria adieraztean Luis Baraiazarrak *Karmel* 214. zenb. (Urtarrila-Martxoa, 1996) eta oraingo honetan, oinarritzko derizkiodan berririk aipagarrienez, bi urgazle horien hildotik arituko natzaizue.

Ematen diren frutuak baldin badira gizonaren adierazgarri, Aita Santik hori inork baino hobeto bete zuen euskaldungoan. Karmeldar egin zen urte berean nabarmendu zen euskaltzale bezala ere. 1927. urtea zen ordenatu zena eta baita bere lehen idazkilaria, "Euskal idazleen uts eta okerrak" argitara eman zuena, bere adiskide eta orde-nakide zuen Lino Akesoloren "Euskararen edertasunak" zeritzanakin batean, *Euskal Es-nalea* saria jaso zuen urtea. Bere aitaren altzotik Lardizabalen *Testamentu Zar eta Berriko Kondaira*-ren mezua jasotzetik zekarren auskararen alderako grina, bizitzan zehar etenik gabe hain kementsu landuko zuena.

Idazle bezala, lehen urratsak, *Euskal Esnalea* hortatik hasi eta *Karmen'go Argia*, *Ekin*, *Yakintza* eta *Euzkadi* aldizkarietan eman zituen. Gerraondoko ekintza latz haietan, lehenbiziko *Karmengo Egutegia* (1956) piztu zuen, gero handik edo haren inguruan, lehen aldiko gora-behera batzuketan, *Karmel* (1961) eta *Olerti* (1959) aldizkariak sortzea lortu zuen. Ordurako kaleraturik zuen ondoko urteetan gure literaturaren ospe eta eragin handia lortuko zuen *Milla Euskal-Olerki Eder* (1954) zeritzan antologia. Inguru-giro horretan, Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 1957. urtean. Ohorezko berriz 1979an. Ez hura ohore bila zebilelako, gu zordun ginelako baizik. Eta 1967an, Euskal Kulturaren Alde zeritzan erakundeak "J.A. Agirre" saria eman zion. Orintsuago, 1990. urtean, Jaurilaritzaren aldetik Euskal Letren Saria jaso zuen.

P. Uribarrenek ongi zion bezala: "Nekez aurki dezakegu Euskal Literaturaren historian, euskarari Aita Santi Onaindiak adineko ekarpen oparorik eman izan dion idazlerik". L. Baraiazarrak orde: "Euskal letretan langile aspergaitza, olerkaria, Grezia eta Erromako klasikoan itzultzailea, bertsolaritzaz eta batez ere euskal literaturaz hainbat liburu idatzi dituen, era askotako gaiak jasoz idazlan eta liburutan ia bukaezineko zerranda luzea duena". Nik neuk, igazko azaroan, *Itzulpen Antologia I* (1996) liburuaren hitzaurrea prestatzean, itzultzaile bakoitzaren nortasunez zerbait agertu beharrez idatzi nuen honako hau: S. Onaindia, gure idazleetan emankorrena. Hainbeste lan burutzeko denbora hartzea ez da fraile soil izatetik, langile borrokatutik baizik. Egile eta eragile

zintzoa, hala ezagutu nuen Eibarko egotaldi hartan eta uste dut hala jarraituko duela mundu honetako azken orduak arte. Lirikan murgildurik, beti alai eta irriparrez, R. Tagore eredu hartzea ez da ulertezina. Beraz, dinamika horretatik ohartuko zarete euskaltzainkideok adierazpen labor honetan ezinezko dudala bere lan guztiaren aipamena egiterik.

Adibidetzat zein laburbidetzat, Jon Bilbaoren *Euskal Bibliographia* har nezake: Donostian Auñamendik argitaratuak, 1976, VI. lib. 373-344. orr.; 1981, X. lib. 285-286. orr.; eta Euskal Herriko Unibertsitateak argitaratuan, III lib. 918. or. Baina ez pentsa horietan dena jasotzen denik, zeren garai bateko aldizkari batzuk oraindik ere aurkibide orokorren premian bai daude. *Escritores euskéricos* (1968) egikeran, idazlanak agertu zituen zenbait aldizkariaren zerrenda eman zidan Aita Santi berak eta honako hauek agertzen dira: *Euskalerraren alde*, *Pyrenaica*, *Karmengo Argia*, *Yakintza*, *Ekin*, *Euzko-gogoa*, *Egan*, *Karmel*, *Zeruko Argia*, *El Bidasoa*, *Almanaka*, *Jesus'en Biotzaren Deya*, *Boga-Boga!*, *Olerti* eta *Aurrera* une hartan oroitzen zenen artean. Gainera, lan asko Igotz eta Otarr izenpean argitaratu zituen. Gaur, haiei beste honako hauk ere gehitu behar dizkiogu: *Agur*, *Goiz Argi*, *Principe de Viana* euskarazko orria, *Zer*, *Saski-Naski* eta abar. Baina, uste dut, Julen Urkizak nahiko ondo bildu zuela *S. Onaindiaren euskal idazlanen bibliografia* (1989) haretan. Geroztik Urkiza berak egina da *Olerti*-ren bibliografia ere, ikus dezagun *Karmel* aldizkariaren 203. zenb., 1993ko lehen alean.

Eibarren hartu omen zuen 1936an anaiarteko gerrateak eta, adinak zein beharrak bultzaturik, "Kirikiño" gudari taldearen kapeilau joan zen. Ibilera latza ordukoa, A. Santi Onaindiak bizia jokatzen ari ziren gastei Jainkoaren mezua eta itxaropena eskaini beharrezko hura.

Ez orduan eta ez gero, bere egitekoan etsi gabe, inori ez zion aurpegi txarrik erakutsiko. Hala zen bere izakera eta hor ere eman zituen bere situak eta zirtoak.

Ondorioz, 1937ko abuztuaren 24an Santanderren italiarrekin preso hartu zuten, Due-soko presondegian bukatzeko. Han sartzean, guziei aldean zutena kentzen omen zien. Baina gure Aita Santik ez zuela gauza berezirik, eskuetan zeramazkin bi liburu baizik: bata Sabino Aranaren *De su alma y de su pluma* eta bestea *Kristoren Antz-bidea* "—Eta hauek zer?" galdetzean, honela ihardetsi omen zuen: "—Hauek otoitz-liburuak".

Duesotik Karmeldarren Probintzialari idatzi omen zion eta erantzuna berehala heldu zitzaion Santandertik, ongi merezia zuela gartzela, karmeldar soinekoa zikindu bai zuen: "Eta hiru urtez bera garbitzen ahalegindu omen zen, hotz, gose eta askatasunik eza pazientzi handiz eroanaz".

Dueso, Santoña, Langraitz, Dueñas eta azkenez Carmona, gartzelarik-gartzela. "Gorriak" omen ziren, baina orduan tokatu zitzaion gorriak ikustea.

Aukera egokirik ez, baina gainerakoan "España bat, handia eta librean" zernahitarik baten, gogoz kontra. Kontatzen zuenez, behin "Aberri" handi horren eskaintza gisa galdetu omen zien: "—Zuk, gose izan eta aukeratzeko bi ogi, bata handi-handia eta bestea txiki-txikia aurrean jarriz gero, zein hartuko zenuke: txikia ala handia?". A. Santik, hitzetik hortzera erantzuna: "—Nik, neuri dagokidana!".

Baina, bere lanetara itzuliz, esan behar dut, olerkigintzaren berri behin baino gehiagotan aburu eta xehetasunak emana den Juan Mari Lekuona euskaltzainburu ordearen

esku utzi zela, legezko denez, gai horretan maisu dugun aldetik. Izan ere, hortarako nor hoberik Juan Mari adiskidea baino?

Hala ere, ezingo nituzke utzi zenbait aipamen, zeren *Milla Euskal-Olerki Eder*-ekin, gazteago ginenoi, euskal literaturaz zerbait jakiteko ateak irekirik utzi bai zizkigun Aita Onaindiak. Hura gurutzat altxorra! Harrezkero, euskaraz literaturarik ez dugula esan didaten guziciei erantzun diet: Guk irakurtzen duguna kontutan har bagenez, merezi dugun baino gehiago.

Karmeldarrek, gezurra badirudi ere, Errepublika garaian jarri zuten Eibarren komentua eta ongi hartuak izan ziren. A. Santi gerrak han hartu bazuen ere, gerraostean bertan igaro zituen bizpairu urte, 1954-1957.etan hain zuzen. Orditik elkar ezagutzen ginen, *Milla Euskal-Olerki Eder* (1954) azaldu baino lehentxoago, antologia hori argitaratzeko prestakuntzetan ari zenean. Liburu horren azalgintzarako, Eibarren hainbeste dibujugileren artean izango zela norbait eta euskara zuzpertz nahirik genbiltzanongana jo zuen galdezka. Guretzat ordea, hortarako nor hoberik gurekideko zen Paulino Larrañaga baino? Hau zen “Txinparta” izenordez liburuarentzat azal polit hura egin ziona. Hogeta hiru urte geroago *Lamiñak* zeritzanaren marrazkiak egin zituen ber-bera. Euskaltzale adiskideok irudiari gure onezpena eman ondoren, Paulinok ordainaren gogoa agertu zigun: “—Lan honen trukean, liburua plazaratzean ale bat eskuizkribuzko eskaintzaz emango balida, a zer poza!”. Han bertan ihardetsi nion: “—Tira mutil, ez duk izango horrenbesteko praila”. Hango parreak A. Santiren belarrietaraino iritsi ziren nonbait. Eta handik laster elkar ikusi ginenean, parre algaraz esan zidan: “—Zuok diozuten bezala: eibartar petua haiz!”. Eta irriparrez jarraitu zuen. Lehengoek horrela eza-gutuko zuten noski, baina geroztik, nik ez ezik gehienok ezagutu dugu beti irripartsu.



Ezkerretik eskumara: Jose Antonio Arana Martija, euskaltzain osoa; Santi Onaindia, euskaltzain ohorezkoa eta hil berria eta Juan Jose Zearreta, euskaltzain urgazle zornotzarra.

Baina liburu hark izan zuen beste anekdotarik ere. Argitaratu, *Censores ordinis, Imprimi potest, Nihil obstat, Imprimatur* eta legezko bedinkazio guziekin argitaratu zen. Batzuen ustez, Onaindia deitura omen zen errudun, jendeak Alberto kalonje herbestera-arekin zer ikusirik ote zuenagatik. Baina, Donostiako Información y Turismo-ko ordezkariak ez dakigu zer sorginkeri ikusi zuten argitalpena baitzeko. Nire ustez, ederragia izaki euskarazko olerki bilduma eta itzarkundea zekarren beldurragatik edo. Egi zuzenik nonbait, legez aitortutako kopurua baino aleren batzuk gehiago atera ziren susmoa omen.

Dena dela, Karmeldarrek Donostian duten etxekoan bidez, hariak lotuz edo hariak luzatuz, zerbait lortu nahi zuen A. Santik. Eta baita lortu ere. Información y Turismo-n garbiketak egiten zituen emakumezkoa ezagutzera heldu zen eta, ez bat eta ez bi, garbiketara lana gehitu zion eskupekoaren trukez, han baiturik ziren aleak lortzeko. Hara hor, garbiketara ez ezik, liburuok zer nolako "turismoa" egitera ateratzen zituen; orduan ginen euskaltzale guti haiek isilpean saltzen jarritz. Batzuentzat ordea, turismo baino gehiago izan zen "aventurismo".

Une berean, A. Santi, Eibarren bertan ari zen jotake F. Arrese Beitiaren *Olerkiak* deitutako zion bilduma hura argitaratzeko prestaketan. Atarian otxandiar olerkariaren bizitza eta lanak zehatz-mehatz adiaraziz, 1956an plazaratua.

Eibartik aldeta gero, euskaltzaleok udaberriz Larrean elkar biltzeko deia jasotzen genuen. Aldi ilun haietako argi izpia zen egun-pasa hura. Goizean bere predikua, eguerdi aldera norbaiten hitzaldia eta ondoren bazkaria. Bazkalondoan elkarrizketak eta kantak osatzen zuten gure egitekoa. Han izaten zen beti Fernando Artola "Bordari" guzian danbolin, Itxarkundia kantatuz giroa berotzen, baita ere Balendik Aurre-Apraiz bere ataldi zelebreekin. Hura bai gazteago ginenontzat benetako gogo pizgarri.

Bere bigarren lan nagusia, *Euskal Literatura* (1972-1977) bost liburukitan argitaratua. Lehen liburukiaren sarrerako hitzetan, 27 orrialdean, euskararen batasunari buruzko iritzi eta kezak agertzen zituen. Guzian gogokotzat jotzen zuen literatur euskararen batasun beharra; baina ez zait iruditzen bidezko Arantzazun 1968ko bilerari buruz esaten zituenak. Bazekin euskaldunok kaska-gogorak ginela eta bakoitzak bere iritziari loturik ariko ginela. Han bildu ginenon gogoak ordea, gure bete beharrez, helburu egoki bateruntz eramango ginuzen bidea markatzea baizik ez zen. Euskal Herriaren historian, idazle kopurua geroago eta handiagoa genuen, ikastolen hedapena inoiz baino zabalagoa eta idazle zein irakasleek, batasun bidearen gidaritzaz sendoa gomendatzearen alde; testu berdintsuetara abiatzeko prest noski.

Esan beharra dut, gauza bakoitzari bere toki egokia eman diezaiogun, egoera hura guziok ez genuela era berdinean ikusten, ez eta gure belarriek entzumen berdintsuan auzitzen. Beraz, ez dut uste A. Santik zion hadinako eztabaida latz eta ikaragarririk ekarri zuenik. Horregatik, han emandako arauak, denboraren ibilian, batasunerako bere bidea egin dute. Orain hemen gaude hizkuntzari etorkizunerako errepide nagusia ibilaraziz. Ukorik egin gabe A. Santi Onaindiak eskaini zigun altxor ederrari.

Bere liburu zerrenda zaigu lekukorik ederrena: *Milla Euskal-Olerki Eder* (1954), *Egieder* izenez bi bilduma (1961-1962), *Eguneroko meza* (1963), *Gure bertsolariak* (1964), *Jolasketa* (1965), *Enbeita oleskaria* (1966), *Larrea eta karmeldarrak* (1968), *Giza-bizia* (1968), *Goiznabar olerki bilduma* (1970), *Milla Euskal-Olerki Eder*, bigarren argitarapena bi liburukitan (1972), *Eskuitzak* (1974), *Las cien mejores poesías de amor*

de La Lengua Vasca (1975), *Euskal Literatura* bost liburukitan (1972-1977), *Euskal Elerti* gaztetxoentzako liburua (1978), *Lamiñak* 1976an saritua (1978), *Leyendas y tradiciones vascas de Navidad* (1978), *Gaurko olerkarien euskal lan aukeratuak* (1981), *Santa Teresa Eliz Irakasle* (1881), *Arana-Goiri'tar Sabin olerkari* (1982), *Nere base-rria* (1985), *25 antzerki labur* (1985), *Gernika* (1987), *Oroi-Txinpartak* (1988).

Itzulpenetaz zer esan ? Antzinako klasikoengandik hasita Horatiren (Horacio) *Odak* direlakoen parte bat eman zuen *Egan* aldizkarian (1955-57an) III. sailletiko “Virgilio deraman ontzia”, baina geroago, 1966. urtean bere babespean argitaratu zituen Andima Ibiñagabeitiak itzulitako Bergili'ren (Virgilio) *Unai-kantak* eta *Alor-kantak*, zeintzuei gehitu zien *Enearena*, berak itzulia. Gainerakoan, aldi berriak artekoa, ikus P. Uribarrenek aipaturiko *Jakin* (1989) 53. zenbakiaren 146. orrialdean dakarren zerrrenda.

Han bertan datoz hitzaurre aurkezpenez eta oharrez argitara eman zituen zenbait idazleren lanak, Santi Onaindia berak bilduak noski. Besteak beste, hemen orain ezin ahantziak iruditzen zaizkit aipaturiko Arrese-Beitiarenaz gainera Txomin Agirrerren *On-darrak bilduma* (1964), geroxeagoko E. Bustintza“Kirikiño”ren *Abarrak, Bigarren abarrrak eta abar* (1966), eta ondotik inoiz ahazten ez zuen *Gure Urretxindora*-ren bertso-lanak osorik (1971), Lauaxeta, Agirre-Lekube, Azkueren ipuiak, M. Zarate eta abar.

Azken ordurarte lan eta lan, ez zuen izan bere buruarentzat atsedunik.

Bere bizitzaren hirualdiak ederki eman zituen P. Uribarrenek aipaturiko *Jakin*-en 142-144. orrialdeetan: Heziketa —gerraurreko aldia, Gerra— gerraondoko aldia eta Ekoizpen aldia. *Oroi-txinpartak* delakotik jasoak nonbait, zeren hango hiru atalak: 1. Fraile, 2. Gudarien kapeillau eta 3. Idazle direlako sailez osatzen bai dira. Ondotik. 149. orrira arte, bere etengabeko liburugintzaren xehetasunak eskaintzen dizkigu. Era berean, 155-156. orr., A. Santiren itzulpengintza jasotzen du. Eta, azkenik, beste ezaugarri batzuk azalduz bukatzen du.

Nik ere bukatu beharra dut, eta hileta hitzaldian Andoni Oleak ederki gogoratuetatik, nik ere, zer gutiago Aita Santi Onaindia berak, bere buruari opa zion zori hura opa izatea baino?:

*Egun da bizitzea,
gau, barriz, erio.
Itzalak biotzari
gaura bultz dagio.*

*Ez, ez ni itxi, Jaun altsua,
argia il orduan...
galdua nindukezu,
gauareen barruan.*

Juan San Martin